

Helburuak

- Euskal itzultzaileen, zuzentzaileen zein interpreteen babes juridikoa lortzea eta lan baldintzak hobetzea
- Euskarara edo euskaratik egiten diren itzulpenen kalitateaz arduratzea
- Itzulpengintza sustatzea, dela euskarara dela euskaratik egiten dena
- Euskal itzultzaileen, zuzentzaileen zein interpreteen prestakuntza profesionala hobetzea



Argitalpenak

- *Senex*
Euskal itzulpengintzari buruzko aldizkaria
- Literatura Unibertsala
Euskaraturiko obren bilduma.
- Urrezko Biblioteka
Literatura Unibertsaleko liburuen berrargitalpenak
- Itzultzaile Aitzindariak bilduma
Gure aitzindariak egindako lanak
- Itzulpen antologiak
Ohorezko bazkideen lanen antologiak

Jarduerak

Ikastaroak

Profesionalentzako prestakuntza-saioak

Itzulpengintza ikusgai

Itzulpengintzari buruzko artikuluak

Literatur itzulpenaren sustapena

Ekitaldiak, tailerrak, irakurle-klubak...

Idazlea Itzultzaileen Lantegian


Euskaratik itzultzeko prestakuntza saioak

Itzultzaile Berriak

Euskal literatura atzerrian ezagutarazteko egitasmoa

Lanbidea

Ofizioaren inguruko egitasmoak



Harremanetarako

EIZIE
Zemoria 25
20013 Donostia
Tel: 943 277 111
bulegoa@eizie.eus
www.eizie.eus



euskal itzultzaile, zuzentzaile eta
interpreteen elkarte

Itzulpengintzak bizi gaitu



Nor gara

EIZIEko bazkideak itzultzaile, interprete eta zuzentzaileak gara, edonon bizi garela euskara langai dugunak. Elkarte 1987an sortu zen.

EIZIEkideen artean arlo guztietako itzultzaile, interprete eta testu-zuzentzaileak daude, eskarmentu handikoak batzuk, hasi berriak beste batzuk.

Harremanak

Euskal Herrian

- EIE, EEE eta Galtzagorri; Euskaltzaindia, Armiarma...
- Unibertsitateak: EHU, UEU...
- Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Etxepare Euskal Institutua...

Estatuan

- CEDRO
- Red Vértice

Europar

- CEATL

Nazioartean

- FIT



Nor da Nor

Euskal itzulpengintzaren datu-basea

ItzuL posta-zerrenda


Euskal itzulpengintzari buruzko foro elektronikoa

Lan-baldintzei buruzko informazioa:

Jardunerako gidak...

Tresnak

Hizkuntz baliabideak, OLI tresnak...



Bazkideentzako onurak

- Informazio trukerako eta harremanetarako gunea
- **Barnekoa** buletina, bazkideen posta-zerrenda
- Bazkideen **lan-poltsa**: lan-eskaintzak edo eskaerak egiteko
- Nor da Nor datu-baseko profila eta harremanetarako bidea
- Aholkularitza
- EIZIERen argitalpen ororen **ale bana**
- Ikastaroetan **lehentasuna** eta **prezio bereziak**
- **Deskontuak** zenbait kudeaketa-tresnatan

Bazkide izateko betebeharrak

Hauetakoren bat bete beharko da:

- Itzultzaile edo interprete izateko ikasketak egin izana, edo
- Euskarara edo euskaratik bi liburu itzuli eta argitaratu izana, edo bi libururen parekotzat jo daitekeen orri-kopurua itzuli izana, edo
- Itzultzaile edo zuzentzaile lanpostu batean gutxienez urtebetean jardun izana, sorburu edo xede hizkuntza euskara izanik, edo
- Interprete lanetan gutxienez 50 orduz jardun izana, sorburu-hizkuntza edo xede-hizkuntza euskara izanik

Bazkide izateko beste aukera batzuk:

- Itzulpengintza eta interpretazioko graduoko 2. zikloko ikasketak edota itzulpengintzako graduondo bat egiten aritzea
- Nahiz eta itzulpengintzan, interpretazioan edo testu-zuzenketan ez aritu, elkartearen helburuekin bat etorri eta **zeregin horietakoren batekin loturiko jarduna** izatea